

**Hondarribi****Uztailak 16-22****9-13 urte****Euskara**

Uztailak 1	Ongi etorri, lehen egun honetan gazteek elkar ezagutzeko eta beraien taldeko harremanak sendotzeko aukera izango dute jolas desberdinei esker. Arratsaldean, beraien informatika abileziak hobetzen lagunduko dieten begiraleak ezagutuko dituzte. Bestalde, hondartzara joateko aukera aprobetxatuko dugu.
Uztailak 2	Iada elkar hobeto ezagutzen garelarik, gogotsu ekingo diegu eguneko ekintzei. Goizean, informatikako lehen saioari ekingo diogu. Talde lanean arituz, alde batetik bestera jardungo gara barre eta algaraz beteak. Egunari amaiera emateko, umorea nagusitzen den ekintza batekin itxiko dugu gaua.
Uztailak 3	Goizean, informatikako bigarren saioari emango diogu hasiera. Ondoren, hondartzan egun pasa egiteko asmoarekin, bertan bazkalduko dugu udako eguzki goxoarekin batera.
Uztailak 4	Iritsi gara udalekuen erdigunera, gure informatikariak proiektu berriei emango diete hasiera goizeko saioan. Arratsaldean berriz, udara aprobetxatuz, ur jolasekin gozatzeko aukera izango dugu.
Uztailak 5	Gaur esploratzaile motxila jantziko dugu eta mendian zehar irteera egingo dugu naturarekin bat egiteko. Eguna amaitzerakoan, bakoitzaren antzerkigile sena azalaraziko dugu.
Uztailak 6	Goizean informatikako proiektuei azken ukituak eman ondoren, arratsaldean zehar gazteek azken gaueko beraien show-a antolatuko dute: dantzak, antzerkiak, abestiak... Ea zerrekin liluratzen gaituzten!
Uztailak 7	Azken egunean, guztiok elkarrekin egon eta gozatzeko aukera izango dugu: gure arteko sinadurak eta argazkiak aterako ditugu. Bestalde, 7 egunetan zehar bakoitzak sorturiko bideojokoa aurkeztuko diete besteei. Udarataz gozatzen jarraituko duzelakoan, ongi izan eta laster arte!

***Oharra:** euria egiten duen egunetarako beste ekintza batzuk programatu ditugu.